



EBAZPENA, 2016KO AZAROAREN 29KOA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, HEZKUNTZA IKUSKARITZAKO ZONALDE BURUTZAKO FUNTZIOAK ESLEITZEKO DEIALDIA BEHIN BETIKOZ EBAZTEN DUENA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2016ko irailaren 22ko Ebazpenaren bitartez deialdia egin zen Hezkuntza Ikuskaritzako Zonalde Burutzako funtzioak zerbitzu eginkizunetan esleitzeko.

Deialdiaren seigarren puntuaren arabera, Langileak Kudeatzeko zuzendariak argitaratuko du Hezkuntza saileko web orrian deialdiaren behin betiko Ebazpena.

Behin-behineko Ebazpena argitaratu ondoren eta horretarako emandako epean erreklamazio bakarra aurkeztu da. Balorazio-Batzordeak aztertu egin du interesatuak aurkeztu duen dokumentazioa eta onartu egin dio erreklamazioa. Horren ondorioz zonalde burutzan esperientziaren atalean eman zitzaion puntuazioa aldatu egin da.

Horiek horrela, balorazio-batzordeak egindako Ebazpen-proposamena ikusita, hauxe,

EBATZI DUT

Lehena.- Hezkuntza Ikuskaritzako Zonalde Burutzako funtzioak esleitzea, 2016ko irailaren 22ko Ebazpenak ezarritakoaren arabera, ondoren zerrendatzen diren ikuskariei. Esleipena bi urterako izango da, epealdi hori beste bi urterako luzatzeko aukararekin, egindako lanaren ebaluazioa positiboa izanez gero:

ARABA 1: Juan Mesanza, Ricardo
BIZKAIA 1: Etxebarria Etxebarria, Xabier
BIZKAIA 2: Valencia Monreal, Eduardo
BIZKAIA 3: Bonet Romero, Manuel
BIZKAIA 4: Fernández Oregui, Maria Carmen
GIPUZKOA 1: Fernández Gutiérrez, José Antonio
GIPUZKOA 2: Eguizabal Luzuriaga, Fco. Javier
GIPUZKOA 3: Unamuno Arruti, M. Agurne

Bigarrena.- Funtzio-espelipen honek eragina izango du 2016ko abenduaren 1etik aurrera.

Hirugarrena Ebazpena Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko web orrian argitaratzea I. Eranskinean agertzen diren eskatzaileen behin betiko puntuazioekin.



ERREKURTSOAK

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 29a

KONRADO MUGERTZA URKIDI
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

